

GIZARTERATZEN LAGUNTZEKO EGUNEKO ZENTROA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte-bazterketa egoeran dagoen pertsona > Eguneko arreta eta gizarteratzeko laguntza

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

18 eta 64 urte bitarteko pertsonak, **gizarte-bazterketa egoeran** daudenak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Inklusio-ibilbide batekiko konpromisoa.

18 eta 64 urte bitarte.

Errolda (**6 hilabete**).

Zertan datza?

Eguneko laguntza-zentroak gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eguna pasatzeko leku bat eta haien inklusioa errazteko laguntza eskaintzen die ([2.2.3 fitxa](#)). Horretarako, bazterkeria jasaten duten pertsonen banakako laguntza jasotzen dute laneratze-programa integral batean, zeinak jarduera okupazionalak, hezkuntza-jarduerak, terapeutikoak eta gizarteratze- eta laneratze-jarduerak barne hartzen baititu. Erizaintzako arreta, otorduak, garbiketa, kontsigna, higiene pertsonala edo garbitegia ere barne har ditzakete. Baliabide malguak eta irekiak dira, eguneko ordutegi zabal batean.

Norentzat?

18 eta 64 urte bitarteko edo gehiagoko pertsonak, **gizarte bazterketa egoeran** daudenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 eta 64 urte bitartean izatea.

6 hilabetez erroldatuta egotea.

Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidearekin edo ibilbide okupazionalarekin **konpromisoa** hartzea.

Intentsitate ertain edo handiko laguntza behar izatea gizarteratzeko ibilbide bat egiteko.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Gizarteratzen laguntzeko eguneko zentroa Araban](#)
- [Gizarteratzen laguntzeko eguneko zentroa Bizkaian](#)
- [Gizarteratzen laguntzeko eguneko zentroa Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)